

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

159/2022 Foru Agindua, uztailaren 4koa, ibilgailuen zirkulazioa murrizten duena Gorbeia Parke Naturaleko Araba aldeko orro sektoreko bide eta pistetan, 2022ko irailaren 5etik urriaren 10era bitartean

Azken urteotan arautu da nola ibili behar duten ibilgailuek Gorbeia Parke Naturaleko (ES2110009 KBE) bideetan eta zein erabilera eta jardura egin daitezkeen oreinen marrualdi garaian, eta emaitza oso onak lortu dira espezie horren kudeaketa planaren barruan. Arabako Foru Aldundia ari da plan hori egiten, eta espeziea hobetzea eta zona horretako kalteak murriztea ekarri du. Ondorioz, denboraldi honetan ere arautu beharra ikusten.

Oreinen sakabanatze geografikoa saihesteko eta ugaltzeko aldietan edo "orroaldietan" hautespen naturalaren alde egiteko helburu bikoitzarekin, beharrezkoa da espeziearentzat kritikoa den aldi horretan zehar ahalik eta gehien murriztea kanpotik datozen nahasmenduak naturagune babestuaren isurialde arabarrean.

Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 29ko 276/2018 Erabakiaren bidez, behin betiko onetsi ziren ES2110009 Gorbeia parke natural eta kontserbazio bereziko eremuaren (KBE) Erabilera eta Kudeaketa Arautzeko II. Plana (EKAP) eta kudeaketa gidalerro eta jardunen agiria. Bada, naturagune horren Erabilera eta Kudeaketa Arautzeko II. Planaren (EKAP) kudeaketa araudiak honako hau xedatzen du "2.7.2.1. Muga bereziak orroaldian" apartatuan: "Orroaldiaren datak irailaren hasieratik urriko bigarren astera bitarte joango dira, eta urtero finkatuko ditu horiek kudeaketa organoak".

Era berean, martxoaren 9ko 10/2010 Foru Dekretuak, Arabako Foru Aldundiaren erabilera eta jabari publikoko mendietan motordun ibilgailuen zirkulazioa arautzen duenak, bosgarren artikuluan xedatutakoaren arabera, naturagune babestuetako zirkulazioak berariazko araudi propioa bete behar du; kasu honetan, Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 23ko 113/1999 Foru Dekretua, zeinaren bidez onesten baitira Gorbeia Parke Naturaleko zirkulazio murrizteko bide eta pistetan ibilgailu motordunak ibiltzeko baimenak erregulatzen dituzten arauak.

Horregatik guztiagatik, Natura Ondarearen Zerbitzuko teknikariek emandako argibideak aintzat hartuta eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Murriztea Gorbeia mendiko Araba isurialdeko marrualdi sektorean diren pista eta bideetako ibilgailuen zirkulazioa, hain zuzen ere, Zuiako eta Zigoitiko udalerrietako lursailetan, honekin batera doan eranskinean zehazten diren mugekin, 2022ko irailaren 5etik urriaren 10era arteko epean, biak barne, salbu eta ehizaren, egurraren, zuraren, larreen eta lu-berrien aprobetxamenduekin edo zientzia ikerketa baimenduekin eta beste batzuekin zerikusia duten kasu berariaz baimenduetan, horri buruz 276/2018 Erabakian eta 10/2010 Foru Dekretuan aipatutakoarekin bat etorritik.

Zirkulazioa murriztuta izango duten pista eta bideak behar bezala seinalatuta egongo dira murrizte aldian.

Bigarrena. Marrualdi eremu mugatuan oinez, bizikletaz edo zaldiz egingo diren ibilaldi guztiak bidezidorren sare orokorraren barruan egin behar dira, eta ezin izango da haietatik irten inolaz ere. Horrez gain, zaldiz eta mendi bizikletaz ibiltzeko, dela taldean edo bakarka, dela era antolatuan, parkeko kudeaketa organoaren baimena behar da.

Hirugarrena. Bi behatoki prestatuko dira, marruak entzuteko, behatzeko, argazkiak ateratzeko eta filmatzeko. Lortutako materiala ezin izango da merkataritza erabilerarako erabili.

Marrualdira joateko honako arau hauek bete behar dira:

- Isilik egon.
- Babespean eta geldi egon.
- Argazkiak atera daitezke, baina flashik gabe.
- Ezin da oreinengana hurbildu.
- Inolaz ere ezin da erabili linterna, foku edo antzekorik.

Laugarrena. Foru Agindu hau indarrean dagoen bitartean debekatuta dago perretxiko eta basafruituen aprobeitxamendua egitea marrualdi eremuan.

Bosgarrena. Ahal dela, eta premiazkoak ez badira (garbiketak, bakanketak, mehazketak), marrualdi eremuan ez da baso lanik egingo foru agindu hau indarrean dagoen bitartean.

Seigarrena. Marrualdian espeziearekin zuzenean zerikusia duten ekintzak, hala nola, marruak entzun, behatu, argazkiak atera, filmatu eta abar, behatokitatik kanpo egin ahal izateko, Natura Ondarearen Zerbitzuaren berariazko baimena beharko da, eta organo horrek ezarriko ditu lekuei, orduei eta jokabideei buruzko baldintzak.

Zazpigarrena. Epe horretatik kanpo ere, urtean zehar debekatuta egongo da motor ibilgailuak ibiltzea Gorbeia natura parkeko pista eta bideetan, EKAPean eta 113/1999 Foru Dekretuan ezarritako baldintzen arabera, berariaz baimendu ezean.

Zortzigarrena. Baimenak Arabako Foru Aldundiko Natura Ondarearen Zerbitzuan eskatu behar dira, hura baita parkeko kudeaketa organoa.

Bederatzigarrena. Natura Ondarearen Zerbitzuak foru agindu honetan ezarritako mugen berri emango die eragindako udalei, administrazio batzarrei eta ehiza esparruei.

Hamargarrena. Foru agindu hau ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko uztailaren 4a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSÉ ANTONIO GALERA CARRILLO

Eranskina I

Marrualdi eremuaren mugaketa:

Iparraldean: Araba eta Bizkaia arteko muga, "Arraldeko haitzak" (Zuia) eta "Leizaranda" (Zigoitia) artean.

Ekialdean: Murua herritik "Leizaranda" dermioraino, Gorbeiaiko harrobietara doan pista eta hortik aurrera.

Hegoaldean: Murua, Manurga, Zárate, Aretxaga, Markina eta Sarria herrietako Gorbeiaiko behe basoa, A-3610 errepidearen eta Gasteiz-Altube N-622 autobidearen gainean dagoena.

Mendibaldean: Baia ibaiarekin paralelo doan pista, Sarria herritik "Arraldeko haitzak" dermioraino.

Aipatutako bideak, mugatzen duten eremutik kanpo geratzen dira.

Eranskina II

Kartografia:

https://gorbeiaparkea.eus/documents/2600738/3110192/Mapa_Marrualdia_web.pdf/83850289-bd87-5ed3-bfb5-86dbe56289bd?t=1598273448870.